



## **Andoaingo Udalak laguntza psikologikoaren beharra antzemateko zerbitzua jarri du martxan, bakarrik edo bikotekidearekin bizi diren 75 urtetik gorako pertsonentzat (75 urtetik gorakoak biak)**

Alarma-egoera ezarri zenetik, Andoaingo Udalaren lehentasunetako bat izan da gure adinekoekin hurbileko arreta eta harreman zuzena izatea. Horregatik, eta dagoeneko eginak ditugun 2.279 deiei jarraipena emateko, Gizarte Zerbitzuen Sailak beste zerbitzu bat jarri du martxan, bakarrik edo bikotekidearekin bizi diren 75 urtetik gorako pertsonentzat oraingoan (biak 75 urtetik gorakoak).

Jakin badakigu, koronabirusak eragindako ziurgabetasun eta desosegu une hauetan, konfinamendu-egoerak kasu askotan areagotu egin duela isolamendu eta bakardade sententzia, eta gure adineko pertsona batzuei ondoez emozionala eragin diela.

Egoera hori arintzeko, datorren astetik aurrera, gizarte-langile bat eta eguneko zentzoko langile bat pertsona horiei deiak egiten hasiko dira, besteak beste, haien gogo-aldartea edo animoa zein den jakiteko, egunean zehar zer jarduera egiten dituzten ikusteko, Udalak haien esku jarrita dituen zerbitzuen berri emateko edo behar dituzten elikagaien eta botiken erosketa egitea konponduta ote duten ikusteko.

Udal zerbitzu hori aurrera eramateko, gainera, 5 psikologoren laguntza izango dugu, Eusko Jaurlaritzak abian jarritako ADI programatik jasoa.

Gainera, Andoaingo boluntarioen sareak jakinarazi digunez, bere taldearen barruan 10 pertsona prest daude hitz egiteko beharra sentitzen duten adinekoen deiak jaso eta erantzuteko. Laguntza zerbitzu honetaz baliatzeko, hala nahi dutenek **635 716 709** telefono zenbakira deitu besterik ez dute egin behar. Gobernu Taldeak berriro ere eskerrak eman nahi dizkie boluntarioei Udalarekin izaten ari diren lankidetzagatik, bizitzen ari garen egun zail hauetan.

Azkenik, aipatu behar da, krisialdi honen hasieratik, udal honek gure artean ahulezian dauden pertsonen ondoan egon nahi izan duela, horretan jarraitzen duela eta jarraituko duela, eta, dagoeneko martxan dauden beste zerbitzu batzuen osagarri moduan, laguntza orokorreko eta laguntza psikologikoko zerbitzu berri hau sortu dela, eta datorren astetik aurrera bakarrik edo bikotekidearekin (biak 75 urtetik gorakoak) bizi diren 75 urtetik gorako pertsonentzat deiak egiten hasiko direla.



## **El Ayuntamiento de Andoain ha puesto un servicio para la detección de necesidades de acompañamiento y apoyo psicológico para personas mayores de 75 años que vivan solas o en pareja (ambos mayores de 75 años)**

Desde que se decretó el estado de alarma, una de las prioridades del Ayuntamiento de Andoain ha sido mantener una atención cercana y un contacto directo con nuestras personas mayores. Por ello y, como continuación a la realización de las 2.279 llamadas, el departamento de Servicios Sociales ha puesto en marcha un servicio dirigido esta vez a las personas mayores de 75 años que vivan solas o en pareja (ambos mayores de 75 años).

Somos conscientes que, en estos momentos de incertidumbre y desasosiego provocados por el coronavirus, el estado de confinamiento ha acentuado en muchos casos la sensación de aislamiento y soledad, derivando en un malestar emocional para algunas de nuestras personas mayores.

Para paliar esta situación, a partir de la semana que viene, una trabajadora social junto con un trabajador del Centro de día van a proceder a empezar a llamar a estas personas para conocer, entre otras cuestiones, cuál es su estado de ánimo, ver qué actividades realizan durante el día, explicarles los servicios que el Ayuntamiento pone a su disposición o detectar si las necesidades de compras de alimentos o medicamentos están cubiertas.

Para el desarrollo de este servicio municipal, se contará además con el apoyo de 5 psicólogas, desde el programa ADI, puesto en marcha por el Gobierno Vasco.

Además, la red de personas voluntarias de Andoain nos ha trasladado que, dentro de su grupo, hay 10 personas que están dispuestas a que las personas mayores que sientan necesidad de hablar puedan llamarles. Para llevar a cabo este servicio de acompañamiento, las personas que lo deseen sólo tienen que llamar al número de teléfono: **635 716 709**. Desde el Equipo de Gobierno, nos gustaría agradecer nuevamente a las personas voluntarias su colaboración con el Ayuntamiento, en estos días tan difíciles que nos están tocando vivir.

Por último, señalar que, desde el principio de esta crisis, es voluntad de este Ayuntamiento estar al lado de nuestras personas más vulnerables y, como complemento a otros servicios que ya están puestos en marcha, ha surgido este nuevo servicio de acompañamiento y apoyo psicológico y que, a partir de la semana que viene se comenzarán las llamadas a las personas mayores de 75 años que vivan solas o en pareja (ambos mayores de 75 años).